Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileko 128.1 artikulua betez eta xedatutako eraginetarako argitaratzen baita.

Soraluze, 2004ko martxoaren 22a.

Alkate-lehendakariak,
ALBERTO SUDUPE OREGI.

# Bestelako Xedapenak

## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

### Zk-1950

EBAZPENA, 2004ko martxoaren 24koa, Turismo sailburuordearena, turismoaren inguruko edukia izango duten ikastaro, mintegi eta bisita teknikoak egiteko laguntzak emateko, 2004ko ekitaldirako deialdia jakitera ematen duena.

Turismoaren inguruko edukia izango duten ikastaro, mintegi eta bisita teknikoak egiteko laguntzetarako deialdia egiten zuen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko apirilaren 16ko Aginduak (maiatzaren 16ko EHAA, 95 zk.), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak turismoaran inguruko edukia izango duten ikastaro, mintegi eta bisita teknikoak egiteko ematen dituen diru-laguntzen nondik-norakoak ezartzen direla bertan.

Aipatutako diru-laguntzak helburu duten kreditoek indarrean dauden legezko xedapenen testu bateginaren IX. tituluan ezarritako luzapen erregimenak dioenari jarraitu beharko diote. Irailaren 27ko 1/1994 Legegintza Dekretuak onartu zuen Euskadiko Diruegitasmoen Jaurpideari buruzko xedapenak dira horiek.

Aipatutako aginduaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, egoki da hor iragarritako diru-laguntzak emateko, 2004ko ekitaldirako deialdia egitea, eta, horretarako, eman beharreko arau guztiak ematea.

Horrenbestez, aipatutako aginduaren 7. artikuluan ezarritako ahalmena erabilita, honako hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua.*– Xedea.

Ebazpen honen xede da Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko apirilaren 16ko Aginduan aurreikusitako laguntzak emateko, 2004ko ekitaldirako deialdia egitea. Agindu horretan turismoaren

Lo que se publica en cumplimiento y a los efectos dispuestos en el artículo 128.1 del Real Decreto legislativo 781/1986, de 18 de abril.

Soraluze-Placencia de las Armas, a 22 de marzo de 2004.

El Alcalde-Presidente,
ALBERTO SUDUPE OREGI.

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

### N°-1950

RESOLUCIÓN de 24 de marzo de 2004, de la Viceconsejera de Turismo, por la que se hace pública la convocatoria de concesión de ayudas para la realización de cursos, jornadas seminarios y visitas técnicas de contenido turístico para el ejercicio 2004.

La Orden de 16 de abril de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se hace pública la convocatoria de concesión de ayudas para la realización de cursos, jornadas seminarios y visitas técnicas de contenido turístico(BOPV n.º 95 de 16 de mayo) establece el marco de ayudas de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco para la realización de cursos, jornadas, seminarios y visitas técnicas de contenido turístico.

Los créditos destinados a la concesión de las citadas ayudas han de sujetarse al régimen de prórroga establecido por el Título IX del texto refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, aprobado por Decreto Legislativo de 1/1994, de 27 de septiembre.

De conformidad a lo establecido en el artículo 7 de la citada Orden, procede realizar la convocatoria de las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2004, dictando a tal objeto las normas necesarias.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 7 de la Orden de referencia,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Objeto.

Es objeto de la presente resolución, la convocatoria para el ejercicio 2004 de las ayudas previstas en la Orden de 16 de abril de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula la concesión

inguruko edukia izango duten ikastaro, mintegi eta bisita teknikoak egiteko laguntzen ematea arautu zen.

Helburu hori betetzearren, 60.100 euro zuzenduko dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan berariaz arlo horretarako izendatutako aurrekontu-kredituari jarraituz.

Diru-kopuru hori aldatu ahalko da, betiere diru-laguntzei buruz ebazpena eman aurretik, eskatutako laguntzak guztira zenbatekoak diren ikusi ondoren, eta, baldin eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak beste programa batzuk burututakoan aurrekontuko diru-kopururik ahitu gabe geratzen bada. Horrelakorik gertatuz gero, egoera horren berri jakinaraziko da Turismo sailburuordearen ebazpena argitaratuta.

*2. artikulua.–* Betekizunak.

Eskatzaileek Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko apirilaren 16ko Aginduan aurreikusitako laguntzak eskuratu ahal izateko, aipatu aginduaren 3. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte. Turismoaren inguruko edukia izango duten ikastaro, mintegi eta bisita teknikoak egiteko laguntzak arautu ziren agindu horretan.

*3. artikulua.–* Eskabideak eta epea.

1.– Eskabidearen eta inprimakien eredua Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko edozein lurralde-bulegotan eskuratu ahal izango da, edo web orri honetan: www.eragintza.net.

2.– Eskabidea eta gainerako dokumentazio osagarria, Turismo Antolakuntzarako Zuzendaritzara zuzenduta, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren lurralde bulegoetan aurkeztu behar dituzte eskatzaileek, edo, bestela, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako lekuetan.

3.– Eskabideak aurkezteko epea deialdia egiteko ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharramunean hasiko da eta 2004ko ekainaren 1ean bukatu.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehendabizikoa.–* Deialdia egiteko ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

*Bigarrena.–* Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari zuzenduta, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko martxoaren 24a

Turismo sailburuordea,
KORO GARMENDIA GALBETE.

de ayudas para la realización de cursos, jornadas, seminarios, visitas técnicas de contenido turístico.

Para este fin se destinarán 60.100 euros, según el correspondiente crédito presupuestario establecido al respecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Este importe podrá ser modificado teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Consumo y con carácter previo a la resolución de las mismas. De esta circunstancia se dará publicidad mediante resolución de la Viceconsejera de Turismo.

*Artículo 2.–* Requisitos.

Los solicitantes, para poder acceder a las ayudas previstas en la Orden de 16 de abril de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula la concesión de ayudas para la realización de cursos, jornadas, seminarios, visitas técnicas de contenido turístico, deberán reunir los requisitos establecidos en el artículo 3 de la Orden de referencia.

*Artículo 3.–* Solicitudes y plazo.

1.– Un modelo de solicitud y de formularios serán facilitados por cualquiera de las Oficinas Territoriales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, o podrá obtenerse en la Web: www.eragintza.net.

2.– Los solicitantes, deberán dirigir la solicitud y demás documentación complementaria a la Dirección de Ordenación Turística, presentándolas en las correspondientes Oficinas Territoriales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, o en los lugares especificados en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– El plazo de presentación de solicitudes se iniciará a partir del día siguiente al de la publicación de la presente resolución de convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco y finalizará el 1 de junio de 2004.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* La presente resolución de convocatoria surtirá efectos al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Segunda.–* Contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de marzo de 2004.

La Viceconsejera de Turismo,
KORO GARMENDIA GALBETE.